



# txi kitto!



**Aitxitxa-amamekin  
berbetan**

**Argitaratzailea**

"...eta kitto!" Euskara Elkartea  
Urkizu, 11 - solairuartera.  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

**Erredakzio kontseilua**

Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak.

**Administrazioa**

Marisol Uriarte.

**Erredakzioa**

Maider Aranberri eta  
Ekhi Belar.

**Maketazioa**

Ana Aizpurua.

**Azaleko argazkia**

Ekhi Belar

**Copyright-a**

Txikitto!

**Lege-gordailua**

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zein da barre egiten duen eta lehertzen den herrialdearen izena?  
JA-PON!



Hiru lagun kaletik doaz: Norbait, Inor eta Tuntuna dute izena. Norbait jausi egiten da eta Tuntuna poliziaren bila joan eta esaten dio:

- Norbait jausi egin da eta Inork ez dio laguntzen.
- Zein?
- Norbait.
- Zein?
- Norbait.
- Zu tuntuna zara?
- Bai, Tuntuna naiz.



Zein da edari misterioitsuena?  
Txan-txan txanpaaaaaan!



- Zer esaten dio zuhaitz batek beste bati?  
- Plantatuta utzi gaituzte.



- Jaimito, esan zerbait zure etxeko animalari buruz.  
- Ba... haragia jaten duela.  
- Zein animalia da?  
- Nire aita.



- Zergatik tontoek ez dute erabiltzen mugikorra edo tableta?  
- Teknologia burmuina jaten duelako.



- Zer egiten du arratoi batek metraileta batekin?  
- Ratatatatatata



- Zer esango luke zure aitak horrelako hitz zatarrak entzunez gero?  
- Miraria dela esango luke, gorra da-eta.



**bitxikiakeriak**



GIZON BAT  
69 URTEZ  
EGON ZEN  
ZOTINAREKIN.  
1922AN HASI  
ZEN ETA 97 URTE BETE ARTE ZOTINA  
KENDU EZINDA EGON ZEN GAIXOA.


ARNASA DENBORA  
GUZTIAN AHOTIK  
BOTATZEA EZ DA  
ONA. TXANTXARRA  
SORTU ETA  
MASAILEZURRAREN  
FORMA ALDA DEZAKE!



HORTZAK GARBITU ETA  
GERO LARANJA-ZUKUA  
EDANEZ GERO, GUSTU  
TXAR EDO ARRAROA  
ZERGATIK SENTITZEN  
DUGUN BADAQUIZUE?  
HORTZETAKO PASTAK  
BLOKEATU EGITEN DITUELAKO  
ZAPORE GOZOAK ANTZEMATEKO  
DITUGUN ERREZETOREAK.

AUKERA  
GEHIAGO  
DUGU KOKO  
BATEK BURUAN  
JOTA HILTZEKO  
MARRAZO  
BATEN ERASOAREN  
ONDORIOZ BAINO.






## Letra-zopa

E	D	U	T	I	L	Q	A
+	L	W	Ñ	M	E	X	Z
X	T	E	N	U	H	D	E
A	I	Ñ	F	U	O	L	R
K	G	K	W	A	I	E	I
U	R	O	S	Q	N	D	R
R	E	X	H	+	Y	+	L
H	I	N	U	R	R	I	E
S	A	G	U	A	J	F	T
A	R	R	A	T	O	I	E

- 1-LEHOI
- 2-ELEFANTE
- 3-AZERI
- 4-TXAKUR
- 5-ÑU
- 6-TIGRE
- 7-ARRATOI
- 8-SAGU
- 9-INURRI


Amara Asprilla Rios 6.A

## 7 desbedintasunak



Arkaitz Esada de Amas Machou

## Jeroglifkoa



Zer erabili zenuen garbitzeko?



Zer falta zaio oheari?

Angela Eloisa 6.maila

## Sudokua

				1	3
1	4	3			6
			6		4
4				5	
		5	3		2
	2			6	5

Ritziber Legarda

# Lehiaketa

## 7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **azaroak 5** baino lehen  
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak .....

Adina..... Tel. ....



Pozik hartu zuen bere saria  
Aitorrek

### Aurreko hileko irabazlea, Aitor De Luis

Zorionak Aitor! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko sudadera zuretako! ZORIONAK txapeldun!

## URBAT waterpolo taldea

# Uretan pozik

Urbat waterpolo taldeko neskek familia ederra osatzen dute eta horren erakusle argiak dira Iraide Sarria, Elene Molina eta Alaitz Ibarrola. Uretan maila handia erakustez gain, uretatik kanpo ere oso giro ona bizi da taldean. Gainera, igerilekuko atea zabalik dituzte waterpolo probatu nahi dutenentzat.



Alaitz, Iraide era Elene.

Adin guztietako neskek daude Urbat waterpolo taldean. 11 eta 36 urte bitarteko 12 neskek osatzen dute taldea eta orain dela lau urte lehiatzen hasi baziren ere, lehenagotik jokatzen dute waterpoloan. "Lehen Eibarren mutilen taldearekin entrenatu eta Iruñeko Larreina taldean jokatzen genuen, hemen ez zegoelako talderik". Hori da waterpolo maitatzea.

Euskal Herriko senior mailan jokatzen dute eta maila ona erakutsi dute azken urteotan. "Beti geratu gara podiumean", diote. Urriaren hasieran ekin diote denboraldi berriari, ilusio handiarekin gainera.

### Inguruko talde bakarra

Iraide leioaztarrak igeriketan egiten zuen eta hortik eman zuen jauzia waterpolora. "Gero Elgoibarrera etorri nintzen bizitzera eta kartel batean ikusi nuen waterpolo jokalaria bila zenbiltzala", eta horrela iritsi zen Urbatera. Elenek, bestetik, hainbat kirol egin ditu, "baina waterpoloan neska bila zenbiltzala ikusi nuen, probatu

eta gelditu egin nintzen". Alaitzek, ordea, beste bide bat jarraitu zuen waterpolora iristeko. "Nik ez nuen ezer egiten eta lagun batek animatu egin zidan. Ura asko gustatzen zait eta aurrera egin nuen". Orain jende bila dabilta. "Aurten jendeak taldea utzi du eta sartu direnak oso gazteak dira". Taldean lau eibartar daude eta Deba, Soralue eta beste hainbat tokitatik etortzen



dira besteak. "Hemen inguruan ez dago nesken beste waterpolo talderik, Donostia eta Leioan bakarrik". Waterpolo egiteko gogo duen jendearen bila dabilta, beste barik. "Kirol ezberdina da eta ez da dirudien bezain gogorra, ezta gutxiago ere".

### Entrenatzeko gogoz

Zortzi urtetik gorakoek eman dezakete izena waterpolo taldean eta hirukotearen iritzi komenigarria da kirol honetan gazte hastea. "Waterpoloan hasteko ez zara demaseko igerilaria izan behar, entrenatuz gero ondo egokitzen zara baldintza guztietara. Hori bai, gazte hasten bazara, hobeto, gehiago hobetu dezakezulako". Horretarako, astean lau aldiz entrenatzen dira, baina libre duten egunean jaurtiketak entrenatzeko geratzen dira euren kontura. Hirukoteak hobekuntza handia igarri du urte hauetan.

Gazteentzat talde gehiago ditu Urbatek, eta mutilek eta neskek elkarrekin jokatzen dute maila horietan. Entrenamenduak 17:00etan hasten dira Orbea kiroldegian Davide Cerchi entrenatzailearen gidaritzapean eta Iratxe Astigarraga prestatzaile fisikoarekin. Beraz, norbaitek izena eman nahi izanez gero, arratsalde batean Orbea joatea besterik ez du behar. "Probatu dezatela, gehienak geratu egiten dira".

**Zenbat kontu dituzte kontatzeko gure aitxitxa-amamek! Hain justu horretarako sortu dugu atal berri hau, gure nagusiekin berbetan jarduteko, eta eurei buruz gauza gehiago jakiteko. Horretarako, hilero, aitxitxa edo amama bat eta haren biloba aurrez aurre jarriko ditugu. Gaztetxoek elkarrizketa egingo diete nagusiei.**



Lehenengo elkarrizketarako Manex eta Mari Karmen elkartu ditugu. Manexek 11 urte ditu eta Iturburun ikasten dihardu, 6. mailan. Mari Karmen Manexen amama da, 71 urte ditu, izatez markina, Elgoibarren bizi da orain. Manexek amama elkarrizketatu du.

**“Zuek baiño denbora gehixago emoten genduan kalia”**

**- Eskolan eta ikasketetan zelan moldatzen zineten ordenagailu eta internet barik?**

Kaligrafia pilla bat ikasi genduan, letra on-ona eukitzeko. Eta dana ikasten genduan buruz, ondiok errege bisigoduen zerrenda esateko moduan nago!

**- Zelan eta zertan pasatzen zenuten aisialdia?**

Lagunekin jolasten kalia. Zuek baino askoz be denbora gehixago emoten genduan kalia. Eta kaleko girua ez zan eskolako girua. Lagunak kaleko lagunak ziran. Kotxerik ez zebillen kalia eta lasai ibiltzen giñan.

**- Zertara jolasten zenuten?**

Etxietako portalak zabalik egoten ziran eta han ibiltzen giñan, gora eta behera, tinbriak jotzen. Poliziak eta lapurrak, taba-jokua, sokasaltua, kromuak... hórrek ziran gure jolasak.

**- Oporretan nora joaten zineten?**

Iñora bez (*barrezka*). Markina zelaian inguruan ematen genduaren orduak, jolasian.

**- Noiz eduki zenuen lehenengo kotxea?**

Nahiko nagusi nintzala, 26-27 urte eukiko nittuan.



**- Eta zelan mugitzen zineten kotxerik gabe?**

Autoestopian. Zuek jakin be ez dozue egingo zer dan hori. Karreteran hatzamar potolua atara eta zaiñ egoten giñan, ia kotxeren bat gelditu eta nahi genduan lekura eruaten ginttuan.

**- Noiz sartu zen telebista zuen etxean?**

Zure ama telebista bariko umia izan da, pentsau! Neska koskorra izango zan gurian telebisiñua sartu zanian...

**- Eta teknologia berriekin zer moduz?**

40 urte inguru eukiko nittuan leengo bider ordenadore baten aurrian jarri nintzarian; hasieran arrarua egin jatan, baiña gaur egun primeran moldatzen naiz sare sozialekin eta... Nintendoko jolasekin primeran pasatzen dot!

**- Umetan euskera erabiltzen zenuten?**

Ba egixa esan ez. Eskolan erderaz hasi giñan ta gero kalia be erderaz egitten genduan. Etxian amakin erderaz, ez dakit zergaittik, eta aittakin, barriz, euskeraz.

**- Eta eskolan zer moduz?**

Ba beittu, zeozer berezixa kontauko detsut. Monjekin ibilli nintzarian neska ta mutillak danak alkarrekin geuazen geletan; hori oiñ normal-normal ikusten dozue baiña lehen ez zan holan; eta ez hori bakarrik, adin diferentietako umiak geuazen gela berian; gaztienak aurreko illaretan eta nagusixenak atzian.

Ahhhh... eta boligrafuak eta holakuak egon baiño lehen tintiak idazten genduan. Lumia tintan busti eta ala! Ze narrasa nintzan ni... Nere lagunmiña, barriz, txukun-txukuna zan (*barreak*).

Eskerrik asko Manex eta Mari Karmen!!!



## LA SALLE

La Salle ikastetxean, ikasturteko lehenengo egunetan, eskolako martxa berriro hartu eta klaseak goiz eta arratsaldez hasi genituenean, egun osoko txangoak egin zituzten Lehen Hezkuntzako ikasleek. Irailaren 24an, 3., 4. eta 5. mailakoak Arratera joan ziren eta hurrengo egunean, 1., 2. eta 3. mailakoak autobusez Arratera igo eta gero, San Pedrora joan ziren oinez. Primeran pasa zuten denek!

Horrez gain, 3. eta 4. mailakoek Ipuruako igeriketa ikastaroetan hartu dute parte. Irailaren 30eko astean eta Eibarko udaletxearekin bat eginez, Elikagaien Bankurako La Salle Isasiko familien laguntzarekin oinarrizko janariak batu genituen.



## AMAÑA

Kurtso berriari ongi etorria emateko Amaña herri ikastetxeko LHko ikasleak eta irakasleak Arratera joan ginen irailaren 20an. Gogorrena igoera izan zen oinez joan ginelako. Baina gero, egun zoragarria pasa genuen. Lehenengo, hamaiketakoak jan genuen; gero, jolas antolatutak; eta bazkaldu ondoren, izozkiak erosi genituen eta... jolas libreak! Bukatzeko, autobusez jaitsi ginen: Eskerrak..., LEHER EGINDA GEUNDEN-ETA! EA DATORREN KURTZOAN BERRIRO JOATEN GAREN!!!



## SAN ANDRES

San Andres ikastetxeko 3. zikloko neska-mutiek hiru egun pasatu dute Zuhatza uhartean. Oso eguraldi ona egin die eta aukera izan dute ur-kiroletan aritzeko: piragua, windsurf, arrauna... Zuhatzak aukera handia eskaintzen du ibilaldiak egiteko, ur-kirolak praktikatzeko, gaubelak egiteko...



## ALDATZE

Joan den irailaren 20an Aldatzeko 4 eta 5 urteko ikasle gaztetxoak eta 1., 2. eta 3. mailako ikasleak Arratera irteera egin zuten. Egun hartan eguraldi bikaina egin zuen eta autobusez igo ondoren hamarretakoak eta ogitartekoak jan zituzten. Guztiek elkarrekin pozik jolasteko aukera paregabea izan zuten, eta Arrateko eliza ere bisitatu zuten.



## ARRATEKO ANDRA MARI

Kaixo lagunok, hemen gaude Arrateko Andra Mari eskolako irakasle, ikasle eta gurasoak ikasturte berria gogoz ekiteko prest!  
Urtero bezala aurten ere ekintza mordoxka bat izango ditugu ikasturtean zehar:  
Urriaren 28tik azaroaren 5era arte "Euskararen Baloia" izango dugu gure eskolan; hainbat ekintza antolatuko ditugu baloia inguruan euskararen erabilera bultzatzeko. Sorpresatxo bat ere izango dugu!!!!  
Iaz bezala, "robotikako" tailerra berriz ere martxan jarriko da asteazken eguerdian.  
Gure baratzea ere negurako prestatzen hasiko gara, sasoko produktuak landu, zaindu eta ondoren jasotzeko. "Gurasoak ere eskolara" egitasmoa ere martxan jartzeaz dago, ea taldetxo bat lortzen dugun aurten ere. Gurasoak, animatu eta izena eman!!!



## URKIZU

Ikasturte berriari gogotsu heldu diote Urkizuko irakasle eta ikasleek. Gutxinaka motorrak berotzeko lanean aritu dira irailetik hona, eta dagoeneko denak buru-belarri dabilta lanean.  
Eskolako gaztetxoek primeran egokitu dira eguneroko martxa zorora, eta bien bitartean, Lehen Hezkuntzako ikasle beteranoek ikasturteari ongi etorri aparta emateko Arratera txangoa egin zuten joan den irailaren 26an. Egunak dotore argitu zuen eta eguzkia lagun, tipi-tapa oinez igo ziren guztiak eta primerako eguna pasa zuten bertan.  
Gainera aste honetan 6. mailakoak Arantzako barnetegian egin dute 3 egunetako egonaldia eta primeran ibili dira, hauek bai eman diotela ikasturteari hasiera aparta! Jarduera desberdinak eginez ondo pasatzea izan da irteeraren asmoa, baldintza



bakarrarekin: beti ere mingainak euskara erabilia astintzea. Ahoa bizi-bizi, belarria prest beti, brinko eta brinko euskaraz!

## ITURBURU

Zaindu dezagun natura denon artean!  
Goiburua eta asmo horrekin joan ginen Iturburuko ikasleak Arratera. Urteroko ohitura bihurtu da irteera eta aurten bereziki eskatu eta aldarrikatu dugu ingurumena zaintzea. Guztion ardura da eta guztiok egin behar dugu gure esku dagoen guztia natura zaintzeko: birziklatu, zaborrak dagokien lekura botatu, ura behar duguna besterik ez erabili, animaliak eta natura errespetatu... Bertan egun zoragarria pasa ondoren denon ahotan zegoen aldarrikapena egiteko elkartziren, argazkian ikusten den bezala. Indar handiz hasi dugu ikasturtea Iturburun!





## sukal-saltsan

### Oilasko, letxuga eta intxaurrek

#### Osagaiak:

- 2 oilasko-bularki
- Letxuga 1
- Intxaurrek
- Arraultza 1
- Ozpina
- Olio
- Gatza
- Piperbeltza

#### Krepeentzat:

- 3 arraultza
- 150 g. irin
- Gurin koilarakada 1
- 1/4 l. esne
- Olio koilarakada 1
- Gatza
- Perrexila



#### Nola egin:

- 1- **Krepeen masa egiteko**, arraultzak irabiatu eta irina, esnea, olio eta gatza gehitu. Ondoren, perrexila. Irabiagailu elektrikoarekin birrindu masa homogenea lortu arte.
- 2- **Gurina zartaginean urtu**, krepeen masaren koilarakada bat bota eta zartaginean ondo zabaldu. **Mamitzen denean buelta eman** eta minutu batez bertan utzi. Gero, plater batean laga eta masa guztia amaitu arte prozesu bera jarraitu.
- 3- **Mahonesa egiteko**, arraultza irabiatzeko-edalontzian bota. Ozpina, gatza eta 200 ml. olio gehitu. Irabiagailuaren besoa beheraino sartu eta emulsionatzen hasten denean besoa gora eta behera mugitu ondo loditu arte.
- 4- **Letxuga garbitu** eta **juliana** fina egin.
- 5- **Oilasko-bularkia xerratan** moztu, gatzaz eta piperraz ondu eta plantzan kozinatu. Zartagineatik kendu eta tiretan moztu.
- 6- Mahonesa oilasko-tirekin, intxaurrekin eta letxugarekin nahastu. Gatza bota eta krepeak nahasketarekin bete eta bildu.

### Harrizko kaktusak

Harriak ondo garbitu eta lehertu behar dira eta, ahal den heinean, harri luzangak hartzea komeni da, tamaina ezberdinetakoak. Gero, berdez margotu, harri bakoitzean tonalitate ezberdinak erabiliz. Baliteke esku bat baino gehiago eman behar izatea, harria margoz ondo betetzeko. Margoa lehertzen denean dekoratzeko ordua helduko da. Pintzel fin batekin edo akriliko zuri edo berde-argi batekin lerroak, puntuak, gurutzeak... margotu, kaktus-mota ezberdinak irudikatuz. Kaktusak prest daudenean, loreontzia hondarrez edo lurrez bete eta harriak sartu konposizio polita osatuz.

ni bai artista!



**ALDATZEKO 5. MAILAKO IKASLEEK TEKNOLOGIA BERRIETARA EGIN DUTE JAUZIA AURTEN. IZAN ERE, TESTU-LIBURUAK (INGELES, EUSKERA, NATURA, MATEMATIKA, GIZARTE-ZIENTZIAK, LENGOAIA, TUTORETZA, ERLIJOA, GIMNASIA, PLASTIKA, BERTSOLARITZA...) ORDENAGAILU BATEAN ERABILIKO DITUZTE IKASTURTE HONETAN.**



### Zer moduz gelan erabiltzen dituzuen ordenagailuekin?



IRATI DEL RIO, 10 urte

Nahiko ondo moldatzen naiz ordenagailuarekin. Erabilera erraza bada ere, arazo batzuk izan ditugu testu-liburuaren gakoekin eta posta-elektronikoarekin. Dena den, konpondu ditugu. Gainera, aurten andereño Anarekin gaude eta oso jatorra da.



ANER MURILLO, 9 urte

Ni ondo nabil ordenagailuarekin, pozik. Ez nekien nola funtzionatzen zuen. Gauza asko dihardugu ikasten eta Ana irakaslearekin gustora nago. Ordenagailuan ditugun liburuetan ariketak egiten ditugu, baina ariketa batzuk oraindik koadernoan egiten jarraitu behar dugu. Aurten, adibidez, matematikak euskaraz egiten hasi gara eta pixka bat zaila egiten zaigu, ez gaudelako ohituta.



ZEHAO YE, 10 urte

Arraroa egiten zait ikasgelan ordenagailua erabiltzea, urteak askoan zehar liburuak erabili ditugulako. Gainera, ariketak egiteaz gain, informazioa bilatzeko ere balio digu ordenagailuak. Egiten dugun irakasleari erakusteko, bestetik, pantaila-irudi bat egiten dugu edo egindakoa zuzenean erakusten diogu.



JON ALTUNA, 10 urte

Niretzat hau da gehien gustatu zaidan ikasturtea, ordenagailua erabiltzen dugulako. Gainera, asko ari gara ikasten. Egia esan azkar ikasi dugu ordenagailua erabiltzen, baina etxeko-lan asko bidaltzen dizkigute. Batzuetan talde-lanak egiten ditugu eta ondo moldatzen gara taldeka.



AINARA ORDOÑEZ, 9 urte

Ordenagailua etxean kargatu behar izaten dugu. Bestetik, badago gauza bat asko gustatzen zaidana: ariketa bat egiten dugunean ondo edo gaizki dagoen ikusteko aukera ematen duela ordenagailuak. Beraz, gaizki badago, zuzentzeko aukera ematen digu. Gainera, Ana irakasleak ondo esplikatzen digu nola erabili. Ah, eta posta elektronikoa dugu!



ANDREA CASTAÑO, 10 urte

Gustoko dut ordenagailua erabiltzea, baina ez zait gustatzen etxera eramatea pisua duelako. Bestetik, atzo ingelesa ikasgaiko etxeko-lanak egin behar nituen eta ordenagailuak ez zidan uzten ingeleseko liburuan sartzen. Orduan, beste liburu batzuetan sartzen saiatu nintzen, utzi zidan, eta ingeleseko liburuan berriz sartzen saiatu nintzenean, azkenean utzi zidan.



## zer irakurri

Juan San Martin Liiburutegia



### Pirata bihotza 6 urtetik aurrera

Luis piraten seme eta iloba ausartak bere etorkizuna eraiki behar du eta, beraz, bere itsasontzian itsasoratzeke eguna iritsi zaio. Pixkanaka, gero eta helduagoa izango da, harik eta izua eragiten duen pirata handia bilakatu arte, baina, hala ere, bihotza beti ukabil batean sartuta... Bere adin bereko arrantzale oso txiroa ezagutzen duen unean baino ez du lortzen bere bihotzean aldaketak egotea.



### Frankitxoren maskota berria 8 urtetik aurrera

Bost lagun dira Munstroen Eskolako ikasleak: Hagintxo, Mamutxo, Sorgintxo, Frankitxo eta Neskaotso. Eta haien irakaslea Andereño Herminia. Guztien bizitzak eta kome-riak ezagutu ahalko dituzu orain Munstro Txiki.



### Lehenengo musuaren zain 10 urtetik aurrera

Aimar bizi den etxe-blokea bizi-bizia da. Bizilagun gutxi izan arren, beti daukate saltsaren bat. Aimar askotan arduratzen da Maria eta Junkal alabaren katua zaintzeaz, eta ordainetan, gainera, azken boladan, diru pixka bat ere ematen diote.

## OLAGARROA

### (San Andres ikastetxea)

#### ZELAN JOLASTU?

Bat gelditzen da eta hori olagarroa izango da. Mugak jartzen dira eta besteak muga batetik bestera pasatu beharko dira olagarroak harrapatu gabe. Olagarroak harrapatzen bazaitu zu ere olagarro izango zara. Harrapatu gabe gelditzen den azkena izango da irabazlea.

#### Arauk:

- 1.- Hiru lagun baino gehiago behar dira.
- 2.- Ez du balio tranpak egitea.
- 3.- Ez du balio protesta egitea.
- 4.- Ez du balio inor jotzea.

## jolastokixan jolasian



#### BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/san-andres-3.html>



ipuina

## Gauza guztiak alderantziz!

Bazen behin Matilda izeneko neskatxo bat. Asko gustatzen zitzaion gauzak imajinatzea. Egun batean bere amamaren etxean liburu arraro bat aurkitu zuen eta zabaltzerakoan marratzki liluragarritz beteta zegoela ikusi zuen. Orduan, bat-batean, liburuaren barruan zegoen. Hau pentsatu zuen:

- Baina... Nola sartu naiz ni hona? Zer egiten dut nih hemen?

Lasaitu ondoren, esploratzera joango zela pentsatu zuen. Oso arraroa zen dena, saquek katuak jaten zituzten, gozohiak purea ziren, zizareek txoriei jarraitzen zieten... Hau zorabioa! Dena zegoen alderantziz!!! Baina Matildari berdin zitzaion, berak esploratzen jarraitu nahi zuen. Halako batean, erraldoi bat agertu zen Matildaren izena oihukatzen. Esherrak,



momentu hartan begiak zabaldu zituen eta amamaren etxean zegoela konturatu zen. Azkenean, liburu magikoa zela konturatu zen eta toki sekretu batean gorde zuen. Liburua aurkitzen duen pertsonak abentura berriak biziko ditu. Aaaaa! Erraldoia amama zen, Matildaren izena esaten, bazkaltzeko ordua zelako. Horrela amaitzen da istorio polit hau.

**Maialen Perez**





zu margolari